


Pertsona batzuek GIBa berez nola kontrolatzen duten aurkitu dute

GIBa berez kontrolatzeko gaitasuna duten pertsonak hori nola lortzen duten aurkitu dute. Ikertzaileek aukera ikusten dute mekanismo hori imitatzen duten immunoterapiak sortzeko, gaixoek birusa modu berean kontrolatu dezaten.



ARG.: Darwin Laganzon/Pixabay.

GIBa kontrolatzeko gai diren pertsonen artean bi talde daude: puntu batera iristean birusaren kontrola galtzen dutenak, eta mugagabe kontrolpean mantentzen dutenak. Horien arteko desberdintasunak aztertu dituzte. Eta ikusi dute birusaren kontrola galtzen dutenek, nahiz eta osorik dauden birus oso gutxi izan, zelularen makineria eskurgarri duten genoma-eremuetan integratuta dauzkatela birusak. Eta, horri esker, aukera dago birus berriak sortzeko. Mugagabe birusa kontrolpean mantentzen dutenen kasuan, berriz, basamortu geniko deritzen eremuetan daude integratuta birusak. Eta, kasu horietan, inoiz ezingo lituzkete birus kutsagarri berriak sortu.

Ikertzaileen arabera, ikerketa honek ateak ireki ditu birusa horrelako eremuetan baztertzeko mekanismoak xehetasun handiagoz aztertzeko. Helburua da immunoterapiak garatzeko itinak aurkitzea, gaixoek ere birusa kontrolatzea lor dezaten, hori berez lortzen dutenek bezala. ●

Atomo-geruza bakarreko urrea sortu dute

Atomo-geruza bakarreko urrezko orriak sortzea lortu dute, lehenengoz, Linköping-eko Unibertsitateko (Suedia) ikertzaile batzuek. *Goldene* deitu diote.

Urrea titanio- eta karbono-geruzen artean tartekatua duen material batetik abiatuta egin dute. Duela urte batzuk lortu zuten material hori, baina hortik urrezko orriak ateratzea erronka handia izan da. Azkenean, aurkitu zuten Japoniako forja-teknika bat aproposa izan zitekeela: Murakamiren erreaktiboa. Teknika horrek 100 urte baino gehiago ditu, eta, esaterako, aiztoetan erabiltzen da, karbono-hondarrak kenduz altzairuaren kolorea aldatzeko. Teknika egokitu egin behar izan zuten, hainbat aldaketa eginda erreaktiboaren kontzentrazioan, erreakzio-denboran eta abar.



ARG.: Olov Planthaber.

Material bat hain fina egiten denean, propietateak erabat aldatzen dira, grafitoarekin gertatzen den moduan. Urrearen kasuan, atomo-geruza bakarrekoa denean, erdieroalea izan liteke, esaterako. Propietate berriei esker hainbat aplikazio izan ditza keela aipatu dute ikertzaileek: karbono dioxidoaren konbertsioa, hidrogenoa ekoizteko katalisia, balio erantsiko produktu kimikoen ekoizpena, uraren arazketa, komunikazioak, eta abar. ●